

DBH_4_ESZENIKOA_MUSIKA_PROGRAMAZIO_LABURRA

Irakaslea	Maite Larretxea Zilbeti	Maila	DBH 4 Eszenikoa	Ikasturtea	20-21
-----------	-------------------------	-------	-----------------	------------	-------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Arte Eszenikoak eta Dantza ikasgaiak analisiak egiteko teknika batzuk eskaini behar dizkio ikasleari, horien bitartez gauza izan dadin honako hauek jabetzeko: hizkuntza eszenikoak (Antzerkia eta Dantza) eta Antzerkiaren eta Dantzaren historiak mendeetan zehar izan duen bilakaera ulertu eta interpretatzea; Arte Eszenikoei eta Dantzari begiratzen ikastea; haien garrantzia ulertzea eta haien garapenean izandako aldaketak egiaztatzea; sormen artistikoaz ohartzea eta hura baloratzea berariazko arte baten eskura jartzen denean (Dantzaren eta Antzerkiaren kasuan bezala, esate baterako); euskarri sendoak sortzea Arte Eszenikoei eta Dantzak egindako ibilbidea finkatzeko, eta, orobat, ikaslearen prestakuntza integrean, fisikoan, estetikoan eta kulturean lagungarri izan daitezen.

Ikaslearen prestakuntzari begira, garrantzitsua da Arte Eszenikoei eta Dantzak izandako aldaketa handiez ohartzea. Ikasleak ohartu behar dira legatu bat dagoela, ikusten diren formen atzean dauden ideiak direla-eta (koreografiak, dantza herrikoiak, klasikoak, aurrekoak, klasikoak, garaikideak, dekoratuak, bozetoak, figurinak, antzerkiak eta antzezenetarako eraikinak, testu dramatikoak, antzezenak, etab.) Arte Eszenikoak eta Dantza eraiki eta egiteko eta, hortaz, gizarte eta garai bat ulertzeko modu berezi bat eratu duena; ulertu eta ikasi behar dute, orobat, irakasgaiaren interesa sormenaren alderdi guztiak ulertzean datzala, herri bakoitzak sentitzeko eta pentsatzeko daukan modu bereziaren adierazpen gisa erantsi dituen inguruabarrengatik aldatuz joan direlako (inguruabar historikoak, kulturalak, errituei eta ingurumenari lotutakoak, teknikoak, estilistikoak edo sinbolikoak). Hori guztia giltzarria da mundu garaikidea ulertzeko.

Funtsean, helburua da ikaslearen kultur ondarea aberastea, eta hala lehengo kulturetako nola mende honetako lan, ikuskizun eta muntaketen edertasunaz ohar daitezen erakustea, izan ere, ondare horrek multzo bat osatzen du, haiek ere beren ondorengoei utzi behar dieten legatu bat.

ONARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.						X	X			
3) Gaitasun digitala.				X		X		X		
4) Ikasten ikastea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	
6) Ekimena eta ekintzaitza.		X				X		X		
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

- Ikasleek gai izatea arte eszenikoen inguruko errealitateaz haunartzen.
- Arte eszenikoak, komunikazio baliabide bezala duten eraginaz eta garrantziaz konturatzea.
- Arte eszenikoak, gizartearen adierazpen kanal bezala ohartzea.

EDUKIAK

1. Ebaluaketa:

- Arte eszenikoen eginkizuna.
- Arte eszenikoen nortasunaren garapenean duten eragina.
- Arte eszenikoen dituzten adierazpen baliabideak, hizkuntzakoak eta hizkuntzaz kanpokoak.

<p>2. Ebaluaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Antzerki moduak eta estiloak. · Antzezteko teknikak lantzea: interpretazioa (antzezlearen tresnak, gorputz adierazpena, keinuen, hitzen eta erritmoaren eta musikaren bidezko adierazpena). · Lan kooperatiboa antzerkian: talde dinamikak. <p>3. Ebaluaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Dantza estiloak eta moduak. · Dantza estiloak eta moduak: bakoitzaren interpretazioa. · Beste arte eszeniko batzuen kontzeptua eta tipologia: dramatizazio eta antzerki izaera (zirkoa, opera,...). 					
EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK					
DBH CURRICULUMA					
UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA					
1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
6	ANTZEZLANA HAS DADINI	6	HAU TRAGEDIA BAT DA.	6	KOREOGRAFOAK GARA
8	IZAN EDO EZ IZAN, HORI DA GAKOA.	8	THE SHOW MUST GO ON!	8	DANTZARIAK GARA
8	EZ BEGIRATU EZ ZAITUDALA ENTZUTEN. EZ HITZ EGIN EZ ZAITUDALA IKUSTEN.	8	ANTZERKIA KONPAINIA GARA	8	PAILAZOAK GARA
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK					
<p>DBHko 4. mailan IK/KI metodologia erabiltzen dugu taldeak burutzean.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Alde teorikoa eta praktikoa, betiere, lotuta joango dira. Ahotsaren teknika ikasteaz gain, abestiak ikasiko dira. • Atal praktikoa pisu handia izango du klasearen dinamikan. • Gorputzaren koordinazioa, mugimendua eta adierazpena dantzen bidez landuko dira. • Beste alde batetik, ikasleak egunero gauza hauek eramango ditu klasera: apunteak eta irakasleak emandako materiala. 					
EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA					
<p>Ebaluazio irizpideak berdinak izango dira unitate didaktiko guztietan. Atal teorikoak, %20; atal praktikoa, %40, eta jarrerak, %40.</p>					
KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK					
<p>Emaitzan, hiru atal kontuan izango dira. Alde batetik, praktikoa, ariketa praktikoeekin. Alde teorikoa, proiektuen eta azterketa idatzien bidez ebaluatuko da, eta jarrera ebaluatzeko, klaseko lana, materiala ekartzea, interesa, parte hartzea, euskararen erabilera eta errespetuz jokatzeko kontuan hartuko dira.</p> <p>Proba praktikoa: %40 Proba teorikoa: % 20 Jarrerak: %40</p>					
ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK					
<p>Atal bakoitzean, gutxienez 10etik 4 puntu lortu beharko dira, bestela ez baita batez bestekorik egingo.</p> <p>Lan bat ez aurkezteak edo azterketa bat ez egiteak irakasgaia ez gaintzea ekar lezake. Azterketa edo lana ez egitea behar bezala justifikatu behar da, hau da, dagokion irakasleari gurasoek justifikatu beharko diote.</p> <p>Ebaluazioko nota jartzeko borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen hamartarra 1, 2, 3, edo 4 bada, unitatea bere horretan mantentzen da. • Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada, unitateari bat gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gaintzeko baldintza 5era iristea da. • Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondorengo borobiltze irizpidea. <p>Gutxieneoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gorputz adierazpena lantzeko egiten diren dantzetan parte hartzea. • Klasean eskatutako lanak eta ariketak egitea. • Materiala ekartzea. • Klasean jarrera ona izatea. 					
ERREKUPERAZIO SISTEMA					
<p>Kurtso bitartean: Musika arloan, ebaluazioko nota arestian aipatutako hiru atal horien batura izango da. Azken ebaluazioko nota ebaluazio guztien batez bestekoa izango da. Atal bakoitza gaintu beharko da, kurtsoa gaintu ahal izateko. Ebaluazio bat suspendituz gero, gaintu gabe geratu den atala hurrengo ebaluazioan gaintuz gero, ebaluazioa gaintutuz emango da. Ikasturte amaieran atalen bat</p>					

gainditu gabe geratuz gero, **nahikotasun proban** gainditu lezake. Jarrera suspendituz gero ebaluazio batean, atal hori hurrengo ebaluazioan gainditzea aski izango da.

Ezohiko deialdia: Ikasleari kurtsoan zehar landutako gaietara buruzko lana egiteko aginduko zaio. Alde praktikoa azterketa baten bidez baloratuko da. Azterketa horretan kurtsoan zehar landutako hainbat kanta sartuko dira.

KANPOKO EBALUAZIOA

Dagokien ikasgaien kasuan soilik